

batera doan segurtasun- eta betetasun-sentipena adierazten du.

### Plymouth-eko haurrideak

Plymouth-tarrak ere deitzen dira.

Protestantismotik 1827an sorturiko \*sekta: Berlingen sortua, baina batez ere Ingaltarran zabaldu zena. Edonolako Eliz erakunderen kontrakoak dira: \*Kalbinismotik edaten dute teologia; \*bataioa eta \*eukaristia egiten dituzte, sakramentuen artean. Oso puritanoak dira, batez ere igandeko jaia gordeztean.

Darbitarrak izena ere eraman ohi dute.

### Pobretasuna/Aberastasuna

Pobretasunaren eta aberastasunaren balioztapena ezberdina izan ohi da erlijio batetik bestera. Israeldarrek Jainkoaren bedeinkapentzat eta Haren onginahiaren seinaletzat zeukaten aberastasuna; egiptiarrek heriotzondoko bizitzaren bermetzat hartzen zuten aberastasuna; \*parsismoak hobetzat dauka aberatsa, pobra baina. Txinan ere Jainkoaren bedeinkapenik estimagarrienetakotzat hartzen zuten aberastasuna; eta aberastasunaren jainkoa gurtzen zuten.

Beste erlijio batzuk, ordea, pobretasuna eta \*ondasunei uko egitea goraipatzen dute, erlijiozko helburua lortzeko bidetzat; horregatik aberastasuna gaitzetsi edo gutxietsi egiten dute. Nabarmena da jarrerara hori monako-erlijioen (bereziki \*budismoaren eta \*jainismoaren) irakatsietan. Indiar \*izpiritubidean, bereziki \*hinduismoarenean, norberak premiazko duena baino gehiago edukitzea lapurretatzat hartzen duje, Jainkoa bait da ondasun guztion jabe. Era berean, ondasunen \*irrika horien edukitzea baino kaltegarriagoztat jotzen dute.

Kristautasunak izpirituzko pobretasuna irakasten du fededun guztientzat; oinarri erlijiozko eta etikoa ditu horrek: Jainkoaganatzeko traba bihur omen daitezkeelako eta Jainkoaren omen direlako ondasun guztiak. Hortik ateratzen da \*profeten predikua, pobreenganako \*justizia eskatuz, eta beraz, ondasunekiko desatsekimendua, aberatsei. Bestalde, kristau-erlijioek benetako pobretasun materiala hartzen dute ideal edo goiburutzat, \*pobretasun-botu eta guzti.

Erlijio profetiko eta etiko guztietan pobretasunak eta aberastasunak eduki soziala nabarmentzen dute, erlijiozkoarekin batera: hala nola, \*kristautasunak, \*konfuzianismoak.

\*Baldotarrak edo Lyon-go pobreek "po-

break" izena ematen die fededun burutuei; besteei, berriz, "adiskideak" izena.

Ik. Ondasunak; Erlijioosoa.

### Pobretasun(ezko) botua

Ondasun material guztien jabetzari erabat uko egiteko Jainkoari zinezko hitza ematea da; Elizaren ordezkariaren aurrean egiten dute erlijioosok. Norberaren jabetzari begiratzen dio gehienetan pobretasun-botuak, \*elkarteari utziz ondasunen jabetza. Frantziaskotarrek, berriz, elkarteke jabetzari ere uko egiten diote; baina, uko egite horrek balio sinboliko eta izpirituala du, benetako eta materiala baino gehiago.

Ik. Pobretasuna/Aberastasuna; Frantziaskanismoa; Ondasunak.

### Polidemonismoa

Mundua eta izadia \*jeinuz edo \*izpirituz beteta dagoela sinesten duen erlijiozko sistema: izadiaren izpirituak, hilen izpirituak, airetako izpirituak, lurpeko izpirituak, itsasokoak, etab.

Batzuren ustez, \*politeismoaren sorburua da polidemonismoa. Hemen izpirituek gehienetan ez dute izen propioirik; politeismoan, berriz, bai.

Ik. Animismoa; Demonioak.

### Polifiletismoa

Ik. Monofiletismoa.

### Poligenismoa

Monogenismoaren kontrakoa da: Zientziako teoria, gizadia guraso-bikote batengandik baino gehiagotatik datorrela irakasten duena. Garai batetan nekeza ikustean zuen irakasbide katolikoak poligenismoa eta jatorrizko bekatuaren irakatsi tradizionala elkarrekin uztartzea; baina gaur egun teologo gehienek ez dute horretan buruhausterik.

Ik. Monogenismoa; Jatorrizko bekatua.

### Politeismoa

Grezierazko polys (=anitz) eta theos (=Jainkoa) hitzez osaturiko konposatua da: Jainkoak bat baino gehiago edo ugariak direla sinestea eta irakastea da.

Nekez har daiteke zuzentzat politeismoa, Jainkoaren izatea edo zerizana eta zentzuaren uleper erdi-zuzenetatik abiatuz, horien arabera, Haren \*baztergabetasuna eta, beraz, batasuna, baieztatzen direlako. "In terminis"eko kontradikzioa da bi izaki azkengabe edo infinitu izatea. Horregatik Jainkoari buruzko irakatsiaren anderakuntzat hartu

## Pontea

ohi da politeismoa, historiaren aldetik \*monoteismoa baino lehenagokoa ala geroagokoa den eztabaida alde batera utzirik ere. Ik. Lehen alditako goi-agerkundera.

Izaki zerutar anitz Jainko bakar eta gorenaren menpean hierarkizatzeak --jatorrizko eta ahalezko menpekotasunez, alegia--, Haren azpiko zerbitzariak eta bitartekariak ugaritzeak, jainko edo bitartekari bakoitzari berak sinbolizatuko edota eraenduko duen izadiaren eremuren bat esleitzeak eta gomendatzeak, ez dute azpian, berez, benetako politeismorik adierazten, Jainko bakar gorenaren izatea mantentzen den bitartean. Ik. Jainko goren.

Jakina, izaki zerutar horien aniztasuna nola ulertzen den kontu, horiek aitortzen dituen sinestea edo irakatsia egon daitezke benetako politeismoarekin hurbilago ala horretatik urrutiago. Horregatik, juduen monoteismo absolutuak, esate baterako, mila izaki zerutarren --hala nola, \*aingeruen kontaezinezko oldeen-- izatea baieztatu arren --monoteismoa berrestearren baieztatu, hain zuzen ere--, Javhe bere Jainkoren mugagabetasuna eta bakartasuna hain indar handiz nabarmendu zuen, non irudien gurtzapena bera ere debekatu egin bait zuen eta Jainkoaren izena bera ahotan hartzean oso kontuz eta txit uzkur jokatu bait zuen. Ik. Judaismoa.

Edozein herrik Jainkoari buruz duen irakatsia eta beraren erlijioa monoteistak direla esateko, ez da aski Herri horrek bereztat jainko bakarra onartzea, bestek bere jainkoak edukitzea onartzearekin batera. Monoteismoak aitortzen duen Jainkoaren bakartasunak unibertsaltasuna eskatzen du berez: hau da, aitortzen den Jainko bakarra gizon-emakume guztientzakoa eta Herri guztientzakoa eta bakarra dela. Ik. Henoteismoa.

Gaizkiaren iturburutzat batzuk hartzen duten izakiari buruzko, horrek gaizkiaren gainean omen duen eragutziko botereari buruzko eta ongiaren iturburu den Jainkoaren aurrean hark omen duen eskukotasunari buruzko irakatsiak azpian darama batzutan dualismo-modukoren bat, benetako politeismoa ez bada ere. Ik. Manikeismoa; Dualismoa.

Satanen, gizon-emakumeak bekatura kurtzen dituenaren, izanari buruzko ideia judu-kristauak ez du zerikusirik dualismo manikeuarekin; judaismo-kristautasuneko \*Satanen izaera berezia da: \*aingeru eroria besterik ez da, Jainko baztergabe eta bakarrenaren eragutziko ahalaren menpekota erabat.

Ik. Tesimoa; Erlijioa eta erlijioak; Jainkoa; Idoloa.

Jesús Lezaun  
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

## Pontea

Sin.: Bataio-harria; Bataio-iturria

Latinetiko hitza: iturria esan nahi du.

Bataioko ura dagoeneko edo bataiokoan erortzen deneko aspil handiaren gisakoa da, gehienetan harrizkoa eta lekune jakinean finko jarria. Horrelako ponteak zabaldu egin ziren isurpen-bataioa hedatzean. Garai batean, berriz, helduen bataioa normala zenean, bataiategiaren erdian bainontzi zabalaren antzekoa aurkitzen zen; bertako uretara sartzen zen bataiagia.

Gero haurrak bataiatzeko ohitura, eta bereziki uretaratzezkoaren orde izurtzeko bataioa hedatu zenean, txikiagotu egin zuten pontea eta lurtzorutik gora jaso, koparen tankera emanez, gaur ere ezagutzen dugunaren antzera. Ik. Isurpenezko bataioa.

Elizako \*kapera bereziren batean egon ohi da pontea. Eliza Katolikoan azken liturgi eraberrikuntzaren arabera, kristau-elkartea inguruan biltzeko moduko lekuan egon behar du ponteak.

Ik. Bataioa; Ura.

## Pontifize goren

Jatorriz Erromako apaiz pagano nagusiaren titulua. Bostgarren mendeaz gero, aita santuari eta inoiz beste zenbait apezpikuri ere ematen zieten izen bera, ohorezko titulu gisa. Azkenik aita santuarentzat bakarrik gelditu da.

Ik. Aita Santua; Apaiz nagusia.

## Pontifize-aulkia

Ik. Sede Santua.

## Popea

Grezieratik hitza, aita adierazten duena. Hortik dator erdarazko papa (aita santua) izena ere.

Apaiz ortodoxoei --ez-erlijiosoei-- ematen diete gaur deitura hori. Bizkaierazko \*abadea hitzaren esanahia du, alde horretatik.

## Positibismoa

Auguste Comte-ren (1798-1857) filosofi sistema, non giza ezagutza osoa zer sentigarrietara mugatzen bait du. Zenbait agnostiko ere eritzi berekoa da. XX. mendean ezagutza metafisikoa ukatzen duen eta fisika-zientziak giza ezagutza osoaren arautzat jartzen dituen edozein filosofi sistemari eman ohi diote positibismo izena. Ik. Agnostizismoa.